


# ARABA EUSKARAZ



JAIJA. Olarizuko zelaiguneetan ospatuko dute gaur Araba Euskaraz jaia. ADRIANA LANDALUZE

## Euskarak arnasmune du Olarizun

Oiongo San Bizente ikastolaren eskutik, egitarau oparoarekin antolatu dute gaurko ikastolen aldeko jaia, Gasteizen. 'Mugaezin' leloa du aurtengoak, euskara noranahikoa dela adierazteko.



Araba Euskaraz-en jaiako haur jolasak, musika eta askotariko eskaintza prestatu dute. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

soa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko».

Aurtengo leloa *Mugaezin* da. Gonzalezek dioenez, «mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza, mugarik gabe eta euskaraz hazi eta hezi nahi duten guztientzat».

Olon Arabako Errioxan dago. Mugakidea da Errioxarekin eta Nafarroarekin. «Bazterretik ari gara, bazter herritik, dio Gonzalezek. Baina Oiongo ikastolak «indar zentripetua» eragitea lortu duelakoan dago, «errioxarrak eta haragotik etorri berriak euskarara erakarri» dituztelako.

Lau hamarkada pasatxo ditu Oiongo San Bizente ikastolak. Sortu zenean, Arabako Errioxako biztanleen %4 baino ez ziren euskaldunak, eta gaur egun lortu dute %40tik gora izatea. «Gure gogo, borondate eta grina da Arabako Errioxa euskalduna izatea, Euskal Herri euskaldunean».

Gogo eta grina horrekin sortu zuten logoa ere. Infnituaren ideian inspiratuta dago, eta Arabako zortzi ikastolen arteko lankidetzatza sinbolizatzen du. Espiral forma du, eta, Gonzalezen esanetan, «etengabeko mugimendua adierazten du». Espiralari zortzi ekilore petalo ateratzen zaizkio; Arabako ikastolako, bat. «Petalok hazkundearen, aniztasunaren eta lankidetzaren sinbolo dira». Eta kolore horia gailentzen da, «argia, energia eta bizitasuna sinbolizatzen du». Ekilorea Arabako paisaiaren landare ohikoa da, «komunitatearekin eta lurraldearekin lotura berezia ezartzen du».

#### Auzolana

Hirugarren urtea da Araba Euskaraz Olarizun ospatuko dutena. Urtero ikastola batek hartu arren ardura, zortzi ikastolen artean elkarlanean antolatu ohi dute jala, eta ematen ditu bestelako fruituak ere. Gonzalez: «Hiru urteko esperientzia honek erakutsi digu batasunak ematen digun indarra. Eta, indarrak gain, elkar hobeto ezagutzeko, elkarlanean balioan

# Euskara 'Mugaezin' da Olarizun

Araba Euskaraz ikastolen aldeko festa ospatuko da gaur, Gasteizen, Olarizun. Oiongo San Bizente ikastola laguntzeko izango da aurtien bildutakoa.

ek r


araba euskaraz

Kultura eta aisialdian aukera  
zabalena zure liburu-denda sarean

## Egitaraua

### HASIERAKO EKITALDIA

10:00 Auditorium begetalean  
10:30 Arabako Herriarteko Euskal Pilota Txapelketako finala Adurtzako pilotalekuan  
Egun osoan: gaiteroak, Arai Eraldioen konpartsa, Castellars d'Alt Maresme, Gasteiz lantuz



#### 1 LAUTADA

11:00 Arte eszenikoak  
12:30 Go!azen karaokea  
14:00 Mugaezin txoua  
15:30 Dantza plaza  
17:00 Zumba

Egun osoan: Tailerrak eta jolasak, BERRIaren txokoa

Iturria: Araba Euskaraz

#### 2 MENDIA

11:00 Dantza mugaezint  
12:30 Bertsotan!  
14:00 Mirotz  
15:30 E, Mertzxe!  
17:00 Akerbeltz

Egun osoan: Tailerrak eta jolasak

#### 3 ERREKA

11:00 Maria Arandia  
13:00 Ibil Bedi  
14:30 Janus Lester  
16:00 Burutik  
17:30 DJ Malandro

Egun osoan: Tailerrak eta jolasak

sakontzeko eta elkarren arteko harremanak ehuntzeko balio izan digu. Urrutira iritsi nahi dugulako goaz batera».

Urte osoko lanari ginga jarriko diote, horrenbestez, gaur. Badute eskarmentua halakoak antolatzen San Bizente ikastolan, seigarren aldia baita Araba Euskaraz antolatzearen ardura hartu dutena. Lana ez da, baina, egun batera mugatzen: iazko udazkenean ekin zioten lanari.

Gaurko jaiaren aurretik, hainbat ikuskizun, kontzertu eta jaialdi egin dituzte, guztiak ere euskaraz ardatzuta, kirolarekin

«Bazter herritik ari gara, baina indar zentripetua eragitea lortu dugu, etorri berriak euskarara erakarri ditugulako»

ROBERTO GONZALEZ MURO  
Araba Euskaraz-eko kidea

eta aisiarekin lotuta. Urriaren 27an abiatu zuten 2024ko Araba Euskaraz urtea, Oionen egin zuten aurkezpen jaiarekin. Abenduaren 4an eta 5ean, berriz, Gazte Talent lehiaketaren finala antolatu zuten, Gasteizen. Urtarrilaren 14an, Go!azen hamargarren kontzertua eman zuten, eta otsailaren 25ean, Araba Euskaraz Euskal Pilota Topaketa, Oionen. Oionen bertan Porrotx eta Marimotots izan ziren martxoaren 6an. Beskoitzera ere joan ziren, Lapurdira, ikastolak Herriari egitasmoaren barruan antolatutako Non Eta Muga ekitaldira. Apirilaren 12tik 26ra bi-



JAIA. Musika aukera zabalago da. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

tartean Araba Euskaraz Masters Series zesta punta txapelketa ere izan zuten.

Hori guztia ez dute bakarrik egin. Arabako zortzi ikastoletan sortu dituzte batzordeak, eta lanak banatu dituzte. Hala nola materialaren salmenta, babesle laguntzaileen eta publizitatearen bilaketa, segurtasun aurreikuspeneko lanak, urte osoko egitasmoen antolaketa, eguneko egitarauaren taxuketa eta muntaketa lanen aurreikuspena. Gonzalezen esanetan, «lan asko dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Lan horiek guztiak, bistan da, samurrago egin dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta».

#### Egitarau oparoa

Olarizun gustu guztietarako egitaraua ondu dute, eta jatekoa eta edatekoa ere ez dira faltako.

Jai hiru gunetan banatu dute. Batetik, Lautada; arte eszenikoak eta Go!azen-en karaokea bertan

izango dira. Mugaezin Txoua egin-go dute ikastoletako ikasleek, eta dantza plaza eta zumba ere izango dira. BERRIaren txokoa hor egongo da, besteak beste.

Mendia izeneko gunean bertsoak izango dira, Arabako Bertsotzale elkartearen eskutik. Eh, Mertzxe! taldearen kontzertua gune horretan izango da, eta bertan entzun ahal izango da aurten-go Araba Euskaraz festarako propio sortu duten kanta, zuzenean. Haurren basoa eta jolasen txokoa ere egongo dira gune horretan.

Erreka gunean, berriz, magia ikuskizuna eta kontzertuak izango dira nagusi. Ibil Bedi, Janus Lester, Burutik eta DJ Malandoren kontzertuak egongo dira eguerditik aurrera.

Ibilbidean gaiteroak, konpartsa eta Castellarsak ere egongo dira, eta giro paregabea sortuko dute. Antolatzaileek garraio publikoa erabiltzeko eskatu dute. Gasteiztik joanez gero oinez edo bizikletan joateko eskatu dute. ●



# ELKARLAN U&P

## AHOLKULARIAK

**Aholkularitza**

- ZERGAKE
- LANEA

[www.elkarlan.com](http://www.elkarlan.com)

ARTEKARITZA

NEZINAK

ERRORE

ERRORE

ERRORE

TXAPELARRI 

IN BOSTANNA

Gosariak  
Pikoteoa  
Eguneko menua  
Pintxoak



**EUSKAL  
TABERNA**

**ANBOTO**

Kutxi, 29 • GASTEIZ



**ERROTA  
HORTZ KLINIKA**

Julian Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tel.: 945 213 390 • Faxa. 945 213 390  
errotadental@euskalnet.net

Dastatu betiko esnearen  
zaporea



**EUSKAL HERRIA**  
esnea

www.euskalherriaesnea.com • arreta@euskalherriaesnea.com  
618 829 964



DIDEOKLIPA. Auzolanean grabatu dute bideoklipa. ARABA EUSKARAZ

## «Euskararen indarra gure musika prozesuan sartzea polita izan da»

Ibai Landa Eh, Mertxe! taldeko kidea da, eta talde horrek egin du 2024ko Araba Euskaraz-eko kanta. Pozarren hartu zuten kanta sortzeko «erronka», eta ezin aseago daude izan duen harrerarekin.



'Mugaezin'

Ibai Landak ezin gusturago jaso zuen Araba Euskaraz-eko kanta egiteko proposamena, Oiongo San Bizente ikastolako ikasle ohia eta gaur egun irakaslea baita. Eh, Mertxe! taldeko kidea ere bada Landa. «Rock and roll garage punk» musika estiloa egiten du, haren esanetan. Entseguz entsegu, kontzertuz kontzertu badabilta bidea egiten. Abagune horretan iritsi zitzaizen Araba Euskaraz-eko kanta egiteko proposamena. «Euskararen indarra, energia eta erreferentzialtasuna gure musika prozesuan sartzea polita izan da», esan du Landak.

Kanta egiteko prozesua erabat

askea izan dela gehitu du. Taldearen musika estiloarekin bat egin dute *Mugaezin* kanta, eta letra Landak berak egin du. Sortu eta aurkeztu zutenean, komunitatearen oniritzia berehalakoa izan zela adierazi du. «Eskertzekoa da harrera. Umeek zein ilusioarekin kantatzen duten ikustea pozgarria da. Oiongo plazan aurkeztu genuenean denak kantari ikustea oso asegarria izan da».

Erronkak merezi izan duela loan dago, eta gainera aurtengo leloa ere, *Mugaezin*, abagunearekin bat datorrela uste du: «Mugak haustearen kontzeptua, ateak irekitzearena, oso beharrezkoa den kontzeptua da».

Ezin eskertuago dago, halaber, musika irudietara eraman duen sortzailearekin, Lander Etxedonarekin. Landaren esanetan, *Mugaezin* kontzeptua irudietara eramaten bete-betea asmatu du Etxedonak dantzaren bidez. «Abestia eta irudia ezin hobeto uztartu ditu».

Taldea gogotsu dago gaur Olarizun egingo den jaiari kanta aurkezteko. Ez bakarrik kantatzeko, baita euskararen inguruko festara bartzeko ere. ●

**IBAI LANDA**  
Eh, Mertxe! taldeko kidea

24

ESTORIZU  
ekainak 16



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA  
Zurekin bat

# «Euskara eta kultura inoiz baino biziago daude Arabako Errioxan»

**ARTURO LOPEZ DE LA CALLE**  
Oiongo San Bizente ikastolako zuzendaria

Errioxako mugan egon arren, San Bizente ikastola «mugaezina» dela aldarrikatu du, euskarazko hezkuntza jaso nahi dutenentzako atea zabalik dauzkala. Gaurko festara deitu du.



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Arturo Lopez de la Calle (Guardia, Araba, 1977) da San Bizente ikastolako zuzendaria. Euskarari eta euskal kulturari atea zabalik dizkien ikastola da, eta giro horretan eguna ospatzera deitu du gaur, Gasteizera. Familia gutxi batzuek abiatu zuten proiektua, duela lau hamarkada pasa, eta orain 306 ikasle hartzen ditu.

**Nola sortu zen San Bizente Ikastola Oionen?**  
1975ean hasi ziren lehen mugimenduak Oionen. Guraso batzuk elkartu ziren ikastola sortzeko ideiarekin, eta 1978an era ofizialean sortu zen. Hezkuntza kooperatiba bat sortu zuten. Euskal Herri mailan ere baziren mugimenduak beste herri batzuetan, eta mugimendu horretara batu zen duela 46 urte.

**Zer giro zegoen 1970eko hamarkadan?**

Euskara nabiko galduta zegoen inguru honetan, eta hori sustatzeko hasi ziren familia gutxi batzuk mugitzen. Hazten joan zen komunitatea, familia gehiago hasi ziren interesa izaten ikastolaren hezkuntza ereduaren inguruan, eta euskara eta euskal kultura berreskuratzea nahi zituzten.

**Zer ballabidereldn hasi ziren?**  
Ez zitzaidan tokatu garai hura bizi zena, baina, entzun dudaren arabera, oso ballabide urriekin hasi ziren. Datu bat dut buruan: kontatu izan didate hemen ez zegoela irakasle eskaldunik, eta Gipuzkoatik eta Bizkaitik etortzen zirela; haiei garraioa eta soldata ordaintzeko, gurasoen ekarpenak eta laguntzak beharrezkoak izaten ziren. Azpiegitura

aldetik ere, hasieran eraikinetako beheko aldeetan eta udaletxeak utzitako lokaletan hasi ziren eskolak ematen.

**Nola zegoen euskara Oionen?**

Ni garai hartan jaio nintzen, eta nire txikitako oroitzena da euskara ez zela erabiltzen Arabako Errioxan. Adinkideak izan ginen lehenak euskararekin eguneroko hartu-emana izaten hasi ginenak. **Eta zer bilakaera izan du?**

Gaur egun, nire adin tartekoak gai gara euskaraz hitz egiteko, komunikatzeko. Ez denak, baina asko bai. Euskararen ezagutza %4tik %40ra pasatu da azken berrogei urteetan.

**Zer funtzio izan du ikastolak horretan?**

Ikastola abiatzeko erabaki hura ausardiarekin hartu zuten familia gutxi batzuek, eta ez zitzaie erraza egingo pauso hura ematea. Beste batzuek eman zioten jarraipena, eta handitu joan da. Eskertzekoa da erabaki hura hartu izana. Haiei esker, Arabako Errioxan beste ikastola batzuk ditugu, euskaltegiak dauzkagu, eta euskara eta euskal kultura inoiz baino biziago daude. Eta esango nuke inoiz baino euskaldunago sentitzen garela Arabako Errioxan, mugan.

**Zer da San Bizente Ikastolako hezkuntza proiektua? Zertan oinarritzen da?**

Lantaldetan egiten dugu lan, eta batez ere ikasleen ongizate emozionala baloratzen dugu. Pen-



«Lantaldeetan egiten dugu lan, eta batez ere ikasleen ongizate emozionala baloratzen dugu»

tsatzen dugu ikasle bat emozionalki ez badago ondo ez dela gai ikastolan behar bezala aritzeko, kontzentratzeko. Trebatu egin ginen, eta egunero egiten dugu hamabost minutuko *familiarizazioa* deitzen diogun jarduna. Ikasleekin hitz egiten dugu, zer aldaterekin datozen ilusten dugu, eta, pata ikusiz gero, laguntzen saiatzen gara, senti dezaten hemen gaudela laguntzeko. Gurasoei deitu behar badiegu, deitzen diegu, eta, laguntza profesionala behar badute ere, bideratzen saiatzen gara. Gero, proiektuaren aldetik, ikastolen elkarteko metodologiari segitzen diegu.

**Zer soziologia elkartzen da ikastolan?**

Arabako Errioxan kokatuta gaudela; beraz, landa gunean bizi gara. Oion inguruan herri txikiak daude, eta jatorri askotako familiak jasotzen ditugu. Hori da gure soziologiaren ezaugarria, eta gure atea irekita daude edonorentzat. Esku zabalik hartzen ditugu da-

tozen haur guztiak; atea zabalik daude, mugarik gabe. Euskara eta euskal kultura ezagutu nahi duten guztiorentzat hemen gaude. Araba Euskaraz selgarren aldez antolatzea egoldtu zaizue. Baduzue eskarmentu pixka bat.

Bai, azkena 2015ean antolatua genuen. Zortzi ikastolen artean antolatzen da, halere, eta askoz errazagoa da lanak banatzeko. Inbertsioei dagokionez, 2015ean hasi ginen jangelako lanekin, ez geneukalako jangelarik. Lehen pausoak eman genituen, eta lanak bukatu zituzten, baina mailegu bat eskatu behar izan genuen. Diru kopuru handiak ziren. Aurtengo Araba Euskaraz-en lortzen dugun diruarekin mailegua kitatu nahi dugu.

**Mugaezina da aurtengo leloa. Zer adierazten dizu?**

Mugan gaudela, baina ez daukagula mugarik. Gure atea irekiak daude edonorentzat. Baditugu familiak lan kontuengatik edo beste arrazoiengatik etorri direnak, eta familiei eskaintzen zaie aukera bat euskaraz ikasteko, ez dugu mugarik Nafarroa eta Errioxako haurrak hartzeko. Euskaraz ikasi nahi dutenentzat atea irekita mantentzea da gure helburua. Horrek esan nahi du garraioa, jantokia eta beste eskaini behar dizkiegula. Gaitz ekonomiko eragiten digu, eta familiok egiten diegu aurre horri, guztien artean. ☺



Gurekin  
euskaraz  
hobe!

TXAPELDUN

KUTXI • GASTEIZ

# Euskararekin, sortu ginenetik

EROSI  
+ BAZKIDE  
TOKI  
-----  
EROSKI

araba euskaraz

Ekainak 16  
OLARIZU



Hemengoa  
izatea ona da

**EROSKI**  
zurekin


# IKA euskaltegiari omen, «mugaezin» direlako

Araba Euskaraz-ek IKA euskaltegia omenduko du gaur, Arabako Errioxa euskalduntzeko ikastolekin batera egindako bidea eskertzeko.

IKA helduen euskalduntzean eta alfabetatzean diharduen euskaltegi sarea omenduko dute gaur Araba Euskaraz-en, Arabako Errioxan azken lau hamarkadetan egindako lanarengatik, batez ere. Izan ere, inguru horretako euskalduntzean eskutik aritu dira ikastolak eta euskaltegia. «Lehen ez zegoen ezagutzarik, eta orain bai», Andoni Landa IKA euskaltegiko irakasleak dioenez.

Oiongo San Bizente ikastolako irakasle baten eskutik hasi ziren helduen euskalduntzean 1970eko hamarkada amaieran, gurasoak haurrekin batera euskalduntzeko prozesu hartan. Tartean ikasturte batzuetan hutsune batzuk izan ziren. IKA, Ikas eta Ari, ofizialki 1991n sortu zen, eta, eskualde hartako bulego nagusia Oionen badute ere, Bastidan (Araba), Logroñon (Espainia), Mendabian (Nafarroa) eta inguruko beste zenbait herritan ematen dituzte euskalduntze ikastaroak: «Hor- tik dator gu omentzea, mugaezin garelako».

10.000 biztanle inguruko eskualdean urtero 150 ikasle inguru dituzte IKAren euskaltegietan. Egindako lan eskerdari esker euskara hedatuz joan bada ere, erronka makalak dituzte oraindik ere gainditzeko: «Erronka da euskara erdigunera ekartzea pertsonalki, sozialki eta politi-



TTIKI-TTAKA. Euskarari ikusgaitasuna emateko hainbat egitasmo egiten dituzte IKA euskaltegiak sustatuta. IKA

koki. Horretarako, kontzientzia, motibazioa eta erabilera sustatu behar ditugu».

Eskuz esku egiten dute lan ikastolarekin. DBHko 4. mailaren eta Batxilergoko 2. mailaren artean dauden ikasleekin euskaraz jorri- go aritzeko saioak egiten dituzte. Saio horien helburua da C1 mailaren parera iristea, titulua izan edo ez.

## Guraso Lagun

Baina, gazteez gain, helduekin ere aritzen dira, eta gurasoen euskalduntzea sustatzeko hainbat programa dituzte martxan. Horietako bat da Guraso Lagun proiektua. Helburua da ikastetxe- tako ikasleek euskara ez ikustea irakasgai baten gisan soilik. Hartara, ikastetxetz kanpoko ordute- gietan gurasoak haurrekin egote- ko proiektuak lantzen dituzte, eta elkarren artean euskaraz egiten dute tarte horietan, bai gurasoek seme-alabekin, bai gurasoek euren artean. «Proiektu horren helburua da euskaraz egiteko ohi- tura eta motibazioa sustatzea», Landaren esanetan.

Proiektu horien barnean sartzen da Ttiki-ttaka egitasmoa ere. Hainbat jardueran egiten dituzte egitasmo horren barruan, eta, besteak beste, aisiarekin lotuta euskara kalera ateratzen dute, Arabako Errioxan ikusgaitasuna emateko.

Euskaltegira gerturatzen dira lan kontuengatik euskara titulua behar dutenak, baina, Landaren esanetan, ez dira gutxi haurrek ikastolan utzi eta euskaltegira doazen gurasoak ere. Elkarrekin euskalduntzen diren familiak bada- dira, eta horrengatik ematen dituzte euskalduntze eskolak haurrek ikastetxean dauden ordutegietan ere. ●



«Euskara erdigunera ekarri behar dugu sozialki eta politikoki. Horretarako, erabilera sustatu behar dugu»

ANDONI LANDA  
IKAko irakaslea